

2021eko uztailaren 2a, ostirala

# BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

## 3798

*EBAZPENA, 2021eko ekainaren 16koan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko proiektuen Ierroko ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak ematen baitira 2021erako.*

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dira, eta bi jarduera-mota bereizten. Alde batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioen eraginpeko pertsonak babesteko direnak; eta beste aldetik, ekintza humanitarioko estrategiak, epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak direnak, zeinek, aipatutako babes-ekintzez gain, erakunde humanitarioak sendotzeko eta euskal herritarrak sentsibilizatzeko bestelako ekintzak ere jasotzen baitituzte.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez (2021eko martxoaren 17ko EHAA, 55. zk.), ekintza humanitarioko proiectuetarako laguntzak iragarri ziren 2021eko ekitaldirako. Lagunza horien zenbatekoa, guztira, 6.000.000 eurokoa da.

Aipatutako deialdi-ebazpenaren 4. artikuluak horretarako izendatu duen balorazio-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak lagunza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, proposatu da 16 eskabide onartzea, aurkeztutako lehen 19 eskabideetatik. Horien zenbatekoa, guztira, 3.192.630,04 eurokoa da. Ondorioz, aipatutako deialdirako emateko geratzen den zenbatekoa 2.807.369,96 eurokoa da. Hori guztia kontuan hartuta, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2021eko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak, eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– Bazter uztea ebazpen honen II. eranskinean ageri diren erakundeek aurkeztutako eskaerak, eranskinean adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau entitate interesdunei jakinaraztea.

Laugarrena.– Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta honen aurka gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gora jotzeko errekursoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpenik eman gabe, errekursoa ezetsitzat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 16a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2021eko uztailaren 2a, ostirala

## I. ERANSKINA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza
PRE-2021EH/0001	Fundación Ayuda en Acción - Ekintzaz Lagundi Fundazioa	Babes humanitarioa Mexikon migrazio-ibilbidean mehatxu ugari –bereziki, sexu- eta genero- indarkeria– jasan ditzaketen emakume migratzale, desplazatu, errefuxiatu eta harrera- egoeran daudenentzat, haien kalteberatasun- egoerak murriztuz eta tokiko eragileen gaitasun humanitarioak indartuz.	Mexiko	53	199.092,38 €
PRE-2021EH/0002	Paz con Dignidad elkartea	Palestinako haurrak babesteko neurriak indartzea, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren arabera, torturen eta bestelako tratu kruel edo iraingarrien biltima diren haurrei arreta berezia eskainiz.	Palestinako Estatua	57	200.000,00 €
PRE-2021EH/0003	Alboan fundazioa	Eskualde barruko migrazioa Erdialdeko Amerikan: Babes humanitario integrala Costa Rica iristen diren Nikaraguako, Hondurasko eta El Salvadoriko migratzaleentzat (beharturik migratu behar izan dutena).	Costa Rica	63	200.000,00 €

2021eko uztailaren 2a, ostirala

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza
PRE-2021EH/0004	Nazioarteko Elkartasuna- Solidaridad Internacional	Libanoko hegoaldeko errefuxiatuei lagunza medikoa eta psikosoziala ematea. (3. FASEA)	Libano	52	199.995,82 €
PRE-2021EH/0005	Alboan fundazioa	Desgaitasuna duten haurren inklusioa hobetzea eskolan, komunitate-sarea indartzea eta lagunza psikosoziala ematea Nduta eta Nyarugusuko errefuxiatuentzako esparruetan (Tanzania)	Tanzania	64	200.000,00 €
PRE-2021EH/0006	Farmacéuticos Mundí	Osasun-sistema publikoa indartzea, erantzun integralak emateko, Ipar Kivun (Kongoko Errepublika Demokratiko) osasunerako eta indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea bermatzeko, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdi globalaren eta sexu-indarkeriaren eta generoan oinarritutako indarkeriaren naturalizazioaren testuinguruan.	Kongoko Errepublika Demokratiko	64	200.000,00 €

2021eko uztailaren 2a, ostirala

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza
PRE-2021EH/0008	Bakerako Lankidetza Batzarra	Loturako estrategia lokalizatua, okupatutako lurretan bizi diren Palestina biziaren babes integraturako, Nazioarteko Zuzenbideen Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, arreta berezia jarrita genero-ekitorean, haurren babesean eta hondamendi-arriskua murriztean, Salfit (Zisjordania).	Palestinalako Estatua	66	200.000,00 €
PRE-2021EH/0009	Alboan fundazioa	Yaundé eta Dualako barne-desplazatuengen erantzun humanitario integrala hobetzea, eta arreta berezia jartzear neskengan eta emakumeengan.	Kamerun	51	200.000,00 €
PRE-2021EH/0010	Fundación Mundubat- Mundubat fundazioa	Gazteen nutrizio-baldintzak hobetzea Saharako errefuxiatuen karpamenduetako bigarren hezkuntzako eta prestakuntza pedagogikoko ikastetxeetan	Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	64	200.000,00 €
PRE-2021EH/0011	Bakerako Lankidetza Batzarra	Erantzun humanitarioaren eskuragarritasuna eta kaliitatea hobetzea, genero-indarkerien impaktu eta haurren eskubideen uraketa murrizteko barne-desplazatuengen eta errefuxiatuen 4 kokalekutan, Tillabéri eskualdean (Niger).	Niger	61	200.000,00 €

2021eko uztailaren 2a, ostirala

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza
PRE-2021EH/0013	Arabako SEADen Lagunen Elkartea	Saharako errefuxiatuen kampamenduetan ingurumen-osasuneko zerbitzuak hobetzea	Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	54	194.650,15 €
PRE-2021EH/0014	UNICEF Fundazioa - Espainiako Batzordea	Mopti eta Segou eskualdeetan (Mali), krisi humanitarioek ukitutako haurrei hezkuntza segurua eta kalitatezkoa bermatzea. II. fasea	Mali	52	200.0000,00 €
PRE-2021EH/0015	Fundación Mundubat-Mundubat fundazioa	Eskola-gosarien programa; haurren nutrizio-laguntza bermatzea Saharako errefuxiatuen kampamenduetan.	Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	55	200.0000,00 €
PRE-2021EH/0016	Fundación Itaka-Escolapios Itaka Eskolapioko Fundazioa	Desplazatutako eta harrera-komunitateetako 803 neskatoren eta 712 mutikoren eta haien familien erresilientzia-gaitasuna babestea Bamendako Ongintza Eskoletan, Kamerunen.	Kamerun	50	198.891,69 €

2021eko uztailaren 2a, ostirala

Espedientea	Erakunde eskatzalea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza
PRE-2021EH/0018	UNICEF Fundazioa - Espainiako Batzordea	Genero oinarritutako indarkeria prebenitzeko eta biziñik atera direnen beharrei erantzuteko arreta integrala Ugandako Bidi Bidiko errefuxiatu-kokalekuauan.	Uganda	50	200.000,00 €
PRE-2021EH/0019	Lankidetza eta Garapeneko Zabalketa Elkartea	Indarkeriak desplazatutako Río Valleko (Choco) Embera komunitate indigenen itzulera segurako arreta humanitarioa (Kolombia).	Kolombia	57	200.000,00 €

2021eko uztailaren 2a, ostirala

II. ERANSKINA  
**BAZERTUTAKO ESKABIDEAK**

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Arrazoa
PRE-2021EH/0007	Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional	Nuadibuko errefuxiatuen eta migratzailen giza eskubideak, laguntza psikosoziala eta sensibilizazioa.	Mauritania	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betekizuna; hain zuzen ere, gutxienez 50 puntu lortzea.
PRE-2021EH/0012	Bizilur - Herriren Lankidetza eta Garapenerako Elkartea	Emakume nekazariak pandemiaren aurkako borrokaren buru dira eta nekazaritzasistemaren erresilientzia sustatzen dute Palestinan.	Palestinalako Estatua	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betekizuna; hain zuzen ere, gutxienez 50 puntu lortzea.
PRE-2021EH/0017	Fundación Ayuda en Acción - Elkintzaz Lagundi Fundazioa	Babesa eta laguntza humanitarioa Malin, krisiari, gatazka armatuari eta COVID-19ari erantzuteko.	Mali	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betekizuna; hain zuzen ere, gutxienez 50 puntu lortzea.